

NOLAKOA IZANGO DA BIHARKO ORIO?



Zein herri-eredu nahi dugu?

Hiri Antolamenduko Plan Orokorra Orioren etorkizuna definitzen duen dokumentua da.

Datozen 15 urteetan herrian egingo diren esku-hartze urbanistiko garrantzitsuenak zehazten ditu.

Herri bizia, bizi-kalitatea eta zerbitzuak eskaintzen dituena.

Gazteekin arduratsua, jaioterrian geratzeko aukera ematen dien herria.

Ekipamenduak diseinatzeko, zaintza-eredu berriak kontuan hartzen dituen herria.


Belaunaldien arteko harremanak errazten dituen herria, baita aisialdian ere.

Oinezkoak erdigunean jartzen dituen eta auzoen arteko lotura indartzen duen herria.



Texto en castellano

orio.eus



SOTOAK ETA MUTIOZABAL



Berritasunak

Mutiozabal

Gaur egun jarduerarik ez duen eremu bat berreskuratuko da: Gureak fabrika (edo frantses fabrika), herriko sarreran kokatuta dagoena.



Udalak lokala eskuratzen duenean, Mutiozabal ontziola eraberrituaren jarduera osatzeko baliabideak izango ditu eremu horretan.



Gainera, erriaren bestaldeko sotoetan aurreikusita zeuden etxebizitzak Gureak eremuan egingo dira. Eta eraikiko diren etxebizitzak %40 izaera sozialekoak izango dira.



Horrez gain, oinezkoen pasabidea luzatuko da eta berdegune bat sortuko da.



Sotoak

Herriaren erdigunean dauden *sotoek* agerian uzten dute Orioren izaera arrantzalea.

Bertan egitekoak ziren etxebizitzak Gureak eremuan egingo direnez, herriak eskuratuko ditu sotoak eta ekipamenduetarako erabiliko ditu.



Texto en castellano

orio.eus



AROZENA



Berritasunak

Lotura izango du Dike eremuarekin eta espazio pribatu bat berreskuratuko du herriak.

Egingo diren etxebizitzek % 12 izaera sozialekoak izango dira.



Arozena fabrikaren zati zaharrena (Gaztetxeari lotuta dagoena) eraberritu egingo da eta beheko solairua udal-ekipamenduetarako erabiliko da.



Texto en castellano

orio.eus

ERRIBERA KALEAREN LUZAPENA



Berritasunak

Erribera kalearen luzapenak arnasa emango dio herriguneko zirkulazioari, kalea Bikamiotako errotondarekin lotuko baita.

Herritik ateratzeko irteera berri bat sortuko da eta horrek erdiguneko trafikoa arinduko du.



Gainera, **3.000m²-ko lursaila** lortuko da ekipamenduetarako.



Texto en
castellano

orio.eus

ETXEBIZITZAK



Behar berrietara egokitu

Tamaina askotako etxebizitzak egitea lehenetsiko da, behar ezberdinak dituzten herritarren arteko elkarbizitza bermatzeko.


Etxebizitza turistikoak beheko edo lehen solairura mugatuko dira.

Etxebizitza-eredua



Etxebizitza guztiek balkoia edukitzea bermatuko da.

Irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko baldin bada, handipenak egin ahal izango dira arau batzuen barruan.



Erraztasunak emango dira igogailuak instalatzeko.

Aldaketak egiteko aukera

Etxebizitzak bitan banatzeko aukera emango da (140m²-tik gorakoak).



Teilatu azpian etxebizitzak egitea onartuko da (gutxienez 70m²-koak eta irisgarriak badira).



Texto en castellano

orio.eus

HILERRIAREN HANDITZEA



Udalak partzela
bat erosiko du,
aparkalekuak
egiteko.



Zeremonia
zibilak egiteko
gela eraikitzeko
aukera emango
du.

Era berean,
hilerrian sortu
daitezkeen
beharrei
erantzuteko
aukera izango da.



Texto en
castellano

orio.eus

MUGIKORTASUNA ARDATZ



Aparkaleku-sistema berria

Hainbat egokitzapen egin dira:

Motoentzako
aparkalekuak
egokitu dira.



Herriko ibilgailu
luzeentzako aparkalekua
egokitu da.

Autokarabana-
guneak sortu dira.

Bertakoentzako
eremuak sortu dira.

TAO sistema berria
martxan jarri da.

Datozen urteetan, Dike eremuan **aparkaleku publikoak** egiteko aukera izango da, eta horrek arnasa emango dio herriari.



Oinezkoentzako pasabidea, moilan

Plaza oinezkoentzat egokitu ondoren, pasarela jarriko da oinezkoentzat Bizkarreneko etxearen parean, moilako paseoarekin lotzeko.

Bidegorri-sarea

Bidegorri-sarea osatzeko pausu garrantzitsua eman zen iaz, Bikamiotako errotondatik autopista azpirainoko zatia eginda.

Hurrengo erronka zubian pasarela bat egitea izango da, oinezkoak eta bizikletak pasatzeko.



Texto en
castellano

orio.eus

UDAL EKIPAMENDUAK



Ekipamenduak non?

Herriko hainbat eremutan udal-ekipamenduak eta aisialdirako espazio berriak sortuko dira.

Datozen urteetan egingo diren esku-hartze guztietan jarriko dira ekipamenduak:

Behe-solairuetako lokalak:

Munton, Leundan, Diken eta Gureak-en.

Eraikin berriak egiteko partzelak:

Kofradian eta Diken.

Udalaren esku geratuko diren eraikinak:

Sotoak eta Arozenaren beheko solairua.

Gune horiek diseinatzeko orduan, parte-hartze prozesuak antolatuko dira: bilera irekiak, herri-galdeketak...

Ekipamenduetan zer?

Udalak behar hauek identifikatu ditu:

Adinekoen egoitza.

Euskaltegi handiagoa.

Erabilera anitzeko aretoa.

Herriko sortzaileentzako espazioak (erakusketak, tailerrak, ikastaroak... antolatzeko).

Coworking espazioa.

Gaztelekuaren kokapena aldatzea.

Frontoi berria.



Texto en castellano

orio.eus

